



Honen bidez behean sinatzen duenak “ALTZOko Udaleko Zerbitzu Telematikoak”-en alta emateko eskatzen du, honi erantsitako “ALTZO Udaleko Zerbitzu Telematikoetara sartzeko eta haiek erabiltzeko Kontratuaren Baldintzak” agirian zehaztutako klausulen arabera. Sinatzaileak agiri hori jaso duela eta berorrek guztiz bat datorrela adierazten du.

Aurreko guztia kontuan, sinatzaileak sisteman sartzeko gako bat eskatzen du (PIN), eta hitza ematen du hura ez diela hirugarrengeoi jakinaraziko, eta konpromiso hau beteko ez balu, bere gain hartuko lituzke hortik etor litezkeen erantzukizunak.

Eta ados daudela aditzera emateko, bi aldeek sinatzen dute agiri hau, bi aletan, eta eragin bakarrerako.

Por medio de la presente el/la abajo firmante solicita ser dado/a de alta en los “Servicios Telemáticos Municipales del Ayuntamiento de ALTZO”, de acuerdo con el clausulado detallado en el documento adjunto denominado “Condiciones del Contrato para el Acceso y Utilización de los Servicios Telemáticos del Ayuntamiento de ALTZO”, que el suscribiente declara haber recibido y al que por medio de la presente da su total conformidad.

Por todo ello, en este acto solicita le sea expedida una clave de acceso al sistema (PIN), que el firmante se compromete a no facilitar a terceros; en caso de incumplimiento, el/la abajo firmante asumirá las posibles responsabilidades derivadas de su comportamiento.

Y en prueba de conformidad, ambas partes firman el presente documento, mediante un ejemplar duplicado, y para sólo un efecto.

ALTZOan, 200__(e)ko _____ren ____ (e)an

En ALTZO, a ___ de _____ de 200__

| Udalaren partetik Por el Ayuntamiento | Eskatzailea / El/la solicitante |
|--|---------------------------------------|
| IÑAKI MURUA Alkatea | IZEN ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS |
| | NAN / DNI |
| | e-posta / e-mail |
| | hizkuntza (E edo C) / idioma (E ó C) |
| | telefonoa / teléfono |
| | SINADURA / FIRMA |

ALTZOKO UDALEKO ZERBITZU TELEMATIKOETARA SARTZEKO ETA HAIK ERABILTZEKO KONTRATUAREN BALDINTZAK

- 1. Kontratuaren xedea:** Kontratu honen xedea www.altzo.net atariak ematen dituen aukerak era pertsonalizatua erabiltzeko baldintzak ezartzea da. Kontratu honen bidez ALTZO herritarrek eta bidezko interesak dituztenek -udalerrian egoitza badute edo Udalaren jarduerarekin harremana badute-, aukera izango dute prozedura informatikoak erabiltzeko.
 - Udalaren datu-baseetan dagoen informazioa sartu eta hura erabiltzeko (gaur egun, Errolda, Tasa eta Zergak, Ordainagiriak eta Isunak).
 - Administrazio-izapideak edo eragiketak egiteko aukera; hauek ugarituz joango dira Udala Zerbitzura aukera berriak txertatuz doan neurrian.
- 2. Segurtasuna:** Zerbitzu honetara sartzeko nahitaezkoa izango da norberaren identitatea egiaztatzea eta kontratu hau sinatuta alta ematea; hori Nortasun Agiriaren eta jakinaraziko zaien PIN sarrera-gako baten bidez egingo da. Sartzeko gakoa eskuratuko da zerbitzuaren erabilera-jarraitibideen arabera, eta guztiz pertsonala izango da. Segurtasun-arrazoiak tarteko, alde bietan hitzarturik, Udala izango da sartzeko nahitaezko identifikazio-datuaren hurrenkera erabakiko duena. PINa lortzeko interesdunak eskatu egin beharko du eta eskabidean zehazten ari garen baldintza hauek onartzen dituela adierazi behar du, eta jakinarazpena Udalak horretarako jarriko dituen sistemen bidez egin beharko da. Erabiltzaileak hitza ematen du hirugarrengoei ez diela ez erabiltzaile-koderik eta ez sartzeko gakorik eskuratuko; konpromisoa bete ezean, herritarrek bere gain hartu beharko dute dagozkion erantzukizunak. Udalak ahala du eskatzaileen identitateaz arazoizko zalantza sortzen direnean, eskabideak edo aginduak ez izapidetzeko. Herritarrek bezala Udalak ere euskarri informatiko edo magnetikoan grabatu ahal izango ditu zerbitzua erabiltzean izandako komunikazioak. Lehenbiziko sarrera-gakoa zoriz sortuko du Udalak, eta herritarrek aldatu ahal izango du geroago. Sarrera-gakoa galdu edo ahaztuz gero Herritarren Arretarako Bulegora joan beharko da berria lortzeko.
- 3. Konexioa:** Udalerrin honetako herritar guztiak izango dute zerbitzu honetara sartzeko aukera; halaber, bidezko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek, udalerrin egoitza dutenak edo Udalaren jarduerarekin harremana dutenak, ondoko baldintza hauek betetzen badituzte:
 - Adinez nagusiak izan (pertsona fisikoetan)
 - Aritzeko gaitasun juridiko osoaren jabe badira
 - Zerbitzua erabiltzeko arautegi hau onartu, eta horrela sarrera-gakoa lortuko dute.Zerbitzua eten liteke arrazoi teknikoengatik (esaterako, telekomunikazio-lineetan arazoak, datu-baseen mantentzea, etab.) Udalak ez ditu bere gain hartuko zerbitzua erabili ezinako sor litzakeen galerak, arazoia edozein dela ere, eta horrengatik erabiltzaileak ez du kalte-ordaina jasotzeko inolako eskubiderik izango. Eskatzaileak bere gain hartuko ditu Udalarekin komunikazioa lortzeko behar dituen elementuen kostua eta halaber delako komunikazioa erabiltzeak eta mantentzeak ekar ditzakeen gastuak.
- 4.- Prestazio gehiago eskaintzea:** Zerbitzuak progresiboki prestazio gehiago eskain dezake Udalaren eta herritarren arteko operatibitatea areagotzeko.
- 5.- Datuen egiazkotasuna:** Udalak ez du bermatzen erabiltzaileek zerbitzuaren bidez lor dezaketen informazioaren zehaztasuna; izan ere, litekeena da eguneratua ez egotea, berriki egindako eragiketaren bat erregistratua ez edukitzea edo datu-baseak mantentze-prozesuetan egotea. Nolanahi ere, erabiltzaileek aldera dezakete zerbitzu telematikoen bidez lortutako informazioa udaletxean dagoenarekin, eta horretarako aski dute Udalak herritarren arretarako jarritako telefonora deitzea edo Udalak jarritako beste zeinahi bide erabiltzea.
- 6.- Betebeharrak:** Erabiltzaileak zerbitzu honetan zehaztu bezala erabiltzea onartuko du, eta Udalak aurrerantzean onar ditzakeen arautegiak, erregelamenduak edo ordenantza, eta aplikagarri zaion Indarreko Legedia. Udalak zehaztuko du erabiltzaileak zein eskabide-mota egin behar dituen, zein espediente eta izapide dagozkion zerbitzuaren eta herritarren arteko komunikazioari, kontratu honi dagozkion zerbitzuei edo etorkizunean izan

CONDICIONES DEL CONTRATO PARA EL ACCESO Y UTILIZACIÓN DE LOS SERVICIOS TELEMÁTICOS DEL AYUNTAMIENTO DE ALTZO

- 1. Objeto del Contrato:** El presente contrato tiene por objeto el establecimiento de las condiciones para el acceso y utilización personalizadas de las utilidades contenidas en el portal www.altzo.net, a través del cual los/las ciudadanos/as de ALTZO y demás titulares de intereses legítimos radicados en el municipio o relacionados con la actividad del Ayuntamiento, podrán utilizar procedimientos informáticos para:
 - El acceso y uso de información obrante en las bases de datos municipales (a día de la fecha, Padrón, Tasas e Impuestos, Recibos y Multas).
 - Realizar operaciones y/o trámites administrativos en función de los que progresivamente el Ayuntamiento vaya incorporando al Servicio.
- 2. Seguridad:** El acceso a este servicio está limitado a quienes, tras comprobar su identidad, se den de alta mediante la firma de este contrato; se hará mediante el DNI y una clave de acceso PIN que se les facilitará. La clave de acceso se facilitará con carácter estrictamente personal y de acuerdo con las instrucciones de uso del servicio. Por razones de seguridad, ambas partes acuerdan que sea el Ayuntamiento quien establezca la secuencia de los datos identificativos necesarios para el acceso. La obtención del PIN requerirá solicitud del/la interesado/a en la que se hará constar la aceptación de las presentes condiciones y su notificación se efectuará mediante los sistemas que el Ayuntamiento establezca al efecto. El/la usuario/a se compromete a no facilitar el código de usuario y/o la clave de acceso a terceros; en caso de incumplimiento, el/la ciudadano/a asumirá las posibles responsabilidades derivadas de sus actuaciones. El Ayuntamiento se reserva la potestad de no ejecutar aquellas solicitudes u órdenes que susciten dudas razonables sobre la identidad de las personas que las emitan. Tanto el ciudadano como el Ayuntamiento podrán grabar en apoyo informático o magnético las comunicaciones que mantengan durante la utilización del servicio. La primera clave de acceso será generada de manera aleatoria por el Ayuntamiento, y el/la ciudadano/a la podrá cambiar a posteriori. En caso de olvido o pérdida de la clave de acceso, se tendrá que comparecer personalmente en la Oficina de Atención Ciudadana, para obtener una nueva.
- 3. Conexión:** Podrán acceder a la operativa de este servicio todos/as los/las ciudadanos/as de este Ayuntamiento, así como las personas físicas o jurídicas titulares de intereses legítimos, radicados en el municipio o relacionados con la actividad del Ayuntamiento, que reúnan los siguientes requisitos:
 - Sean mayores de edad (en personas físicas)
 - Dispongan de plena capacidad jurídica para actuar
 - Hayan aceptado la presente normativa de utilización del servicio, con lo cual obtendrán la clave de acceso.El servicio podrá verse interrumpido por causas técnicas (por ejemplo, problemas en las líneas de telecomunicación, mantenimiento de bases de datos, etc.). El Ayuntamiento no será responsable de las consecuencias que pueda ocasionar a los/las titulares la imposibilidad de utilizar el servicio, sea cual sea el motivo que lo origina, y sin que por tal hecho exista derecho a percibir cualquier tipo de indemnización por parte del/la usuario/a. Correrán a cargo del solicitante los elementos necesarios para hacer posible la comunicación con el Ayuntamiento y también el coste que comporte el mantenimiento y la utilización de esta comunicación.
- 4. Ampliaciones del servicio:** El servicio podrá incorporar progresivamente nuevas prestaciones que amplíen la operativa entre el/la ciudadano/a y el Ayuntamiento.
- 5.- Veracidad de los datos:** El Ayuntamiento no garantiza la exactitud de las informaciones a las que puedan acceder los/las usuarios/as por medio del servicio, puesto que pudieran no estar actualizados, no tener registrada alguna operación de reciente realización, o estar las bases de datos en procesos de mantenimiento. En cualquier caso, los usuarios podrán contrastar los datos obtenidos mediante los servicios telemáticos, con los realmente obrantes en dependencias municipales, para lo cual podrán acceder al teléfono de atención al ciudadano o cualquier otro medio que el Ayuntamiento ponga a su disposición.
- 6. Obligaciones:** El usuario aceptará la utilización del servicio en las condiciones descritas en el presente contrato, así como en las normativas, reglamentos u ordenanzas que pudieran ser aprobados por el Ayuntamiento, así como la Legislación Vigente que resulte de aplicación. El Ayuntamiento definirá en qué tipos de solicitudes, expedientes y trámites, el intercambio de información y/o las órdenes que los/las usuarios remitan al

ditzakeenei. Hauek guztiek norberak bere eskuz sinatutako inprimakiak duen balio berbera izango dute.

Udalak honako konpromisoak hartzen ditu:

- Herritarrari jakinarazitako sarrera-gakoa ezkutuan gordetzekoa.
 - Herritarrak hala aginduz gero, sarrera-gakoa eta Nortasun Agiria egiaztatzekoa.
- Udalak ez ditu bere gain hartuko hutsegiteak, ez-egiteak, informazio-galerak, konfidentzialtasun-urraketak edo informazio edo datu pertsonalen bidegabeko erabilerak, Udalari egoztekoak ez diren arrazoiengatik gertatu badira, edo hark kontrolatzen ez dituen komunikazio-sareetan gertatutako akats edo segurtasun-hutsengatik; eta, oro har, ezinbestean sortuak edo baimenik gabeko hirugarrenen sarrera-gakoa bidegabe erabiltzetik gertatu bada.

Erabiltzaileak berriz honako konpromisoak hartzen ditu:

- Sarrera-gakoa ezkutuan gordetzekoa.
- Zerbitzua erabiltzeko eskatzen zaizkion datuak egiaztatu eta are idatziz ere baieztatzea Udalak hala eskatuz gero, babes-neurriengatik edo konfidentzialtasunaren defentsan edo legeak hala agintzen duelako.
- Kodea edo gakoa galdu, lapurtu edo hirugarrenen bidez bidegabe jakin dutela jakinez gero berehala Udalari jakinaraztekoa. Horretarako Udalaren herritarren informazioarako telefonoa erabil daiteke edo posta elektronikoko helbidea.
- Zerbitzuaren funtzionamendu onari eragin diezaioketen oro Udalari jakinaraztekoa.
- Konexioa gaizki erabiltzetik etor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzekoa.
- Gorago zehaztutako betebeharrak ez betetzeak sor ditzakeen kalte eta galerez pertsonalki erantzutzea edo ordezkari eta ahalordedunen bidez, hala balegokio.

7. Iraupena eta kontratu-desegitea: Kontratu honek iraupen mugagabea du, baina noiznahi desegin liteke alde batetik edo bestetik, arrazoirik adierazi gabe eta kalte-ordainaren beharrik gabe, bakarrik kontratua desegin nahi dela gutxienez hamar (10) egun lehenago jakinarazita.

Udalak, bestalde, ahala du akordio hau desegiteko edo berria egiteko erabiltzaileak bertan zehazten diren klausulak betetzen ez baditu. Udalak eten dezake zerbitzua aldi baterako edo behin betiko erabiltzaileengan funtsezko aldaketak gertatuz gero, edo erabilerara-arauek ez direla betetzen ohartzuz gero.

Udalak badu ahala zerbitzuaren baldintzak, aldia, transmititutako datuak identifikatzeko eta baliozkotzeko prozedura teknikoak aldatzeko, aplikagarri den Arautegiaren eta Udalaren beharren arabera. Zerbitzu-titularek aldaketa hauek onartu ezean, kontratua desegintzat joko da.

8. Komunikazioetarako helbidea: Jakinarazpenak eta errekerimenduak egiteko eta zerbitzuaren titularren helbidea eskabidean zehaztu dutena da, edo, bestela, udalaren datu-baseetan ageri dena.

9.- Zerbitzuaren kostua: Sarrera-gakoa eskatzeko, edo datuen kontsulta, eta oro har, kontratu honekin erlazioaturiko edozein zerbitzu eskatzeko, hirugarren idatz-zatiko azken paragrafoan adierazitakoa salbu, doanekoa izango da, ez da tasa, tarifa edo zergarik ordaindu beharko. Hala ere, Udalak ahala izango du geroan hau aldatzeko, eta hala erabakiz gero, jakinarazi egin beharko die erabiltzaile guztiei, gutxienez hilabete lehenago, hartara egoki jo ditzaketen neurriak hartzeko aukera izan dezaten.

10.- Aplikatzekoa den legedia: Udalak badu ahala Zerbitzu hau egoki mantentzeko irizten dion Erregelamenduak eta Ordenantzak garatzeko, eta hauen guztien berri erabiltzaileei emango zaie xehe-xehe. Kontratu honetan aurreikusia ez dagoenerako, zerbitzu honi aplikagarri zaizkion maila goragoko arauetan xedatzen denari jarraituko zaio, bereziki Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoari eta hau osatzen duen arautegiari.

Ayuntamiento mediante el uso de los servicios objeto del presente contrato, u otros que puedan desarrollarse en el futuro, tendrán la misma validez que la entrega de un documento impreso firmado de propia mano

El Ayuntamiento se compromete a:

- Mantener en secreto la clave de acceso facilitada al ciudadano.
- Comprobar la clave de acceso y el DNI cuando reciba las órdenes de operar del ciudadano/a.

El ayuntamiento no se responsabilizará de las omisiones, errores, pérdida de información, vulneración de la confidencialidad y/o acceso indebido a la información o a los datos personales causados por problemas técnicos de la comunicación, no imputable al Ayuntamiento, o debidos a deficiencias o fallos de seguridad en las redes de comunicaciones no controladas por él; y en general, los originados por causas de fuerza mayor o por el uso indebido de la clave de acceso por terceros no autorizados.

El/la usuario/a se compromete a:

- Mantener en secreto la clave de acceso.
- Acreditar los datos que le sean solicitados para la utilización del servicio y, confirmar, incluso por escrito, las órdenes transmitidas cuando lo requiera el Ayuntamiento por medidas de protección, en defensa de la confidencialidad y de la seguridad del sistema, o por imperativo legal.
- Informar inmediatamente al Ayuntamiento en casos de pérdida, sustracción, uso o conocimiento indebido por parte de terceros, del código y/o de la clave. A tal efecto podrá utilizarse el teléfono de información ciudadana o la dirección de correo electrónico que al efecto se señale por el Ayuntamiento.
- Comunicar al Ayuntamiento cualquier circunstancia que pueda afectar al buen funcionamiento del servicio.
- Responder de los daños y perjuicios que pueda ocasionar el mal uso de su conexión.
- Responder personalmente, o a través de sus apoderados o representantes, si es el caso, de daños y perjuicios que haya podido ocasionar por incumplimiento de las obligaciones antes detalladas.

7. Duración/rescisión: Este contrato es de duración indefinida, pudiendo no obstante resolverse por cualquiera de las partes en todo momento, sin necesidad de alegar causa alguna ni tener que indemnizar por ello a la otra parte, con la única obligación de avisar con una antelación mínima de diez (10) días.

El Ayuntamiento se reserva la potestad de rescindir este acuerdo o de rehacer uno nuevo cuando el/la usuario/a no cumpla las cláusulas que en él se especifican. El Ayuntamiento podrá interrumpir la prestación del servicio, temporal o definitivamente en caso de producirse modificaciones relevantes en la situación de los/las ciudadanos/as o titulares del servicio, o si observa incumplimiento de las normas de uso del mismo.

El Ayuntamiento se reserva el derecho de modificar las condiciones del servicio, el período, y los procedimientos técnicos de identificación y validación de los datos transmitidos, de acuerdo con sus necesidades y con la Normativa aplicable. La no aceptación de estas modificaciones por parte de los titulares del servicio supondrá la rescisión anticipada del servicio.

8.- Domicilio para comunicaciones: Los/las titulares del servicio señalan como domicilio para requerimientos, notificaciones, etc., el domicilio que figura en el procedimiento de solicitud de servicio o, en defecto de éste, en las bases de datos municipales.

9.- Costo del servicio: La solicitud de la clave de acceso, la consulta de los datos, y en general, cualquier operativa relacionada con el servicio objeto del presente contrato, a excepción de lo señalado en el último párrafo del apartado tercero, está exento del pago de cualquier tasa, tarifa o impuesto. No obstante, el Ayuntamiento se reserva el derecho de modificar esta situación en el futuro, debiendo notificar tal decisión a todos/as los/as usuarios/as con una antelación mínima de 1 mes, a fin de que puedan adoptar las medidas que estimen pertinentes.

10.- Legislación de aplicación: El Ayuntamiento se reserva el derecho a adoptar las Ordenanzas o Reglamentos que estime necesario para el buen mantenimiento de este Servicio, de todo lo cual se informará detalladamente a los/las usuarios/as. En todo lo no previsto en el presente Contrato, se estará a lo que dicten las normas de carácter superior que resulten de aplicación, en particular la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y normativa que la complementa.